

Markak, arrastoak, ahazturaren kontra

por **D. Bernardo Atxaga**

*Conferencia pronunciada
el 14 de diciembre de 2004*

Forum Deusto

Markak, arrastoak, ahazturaren kontra

Bernardo Atxaga*

Aurren aurrena, pentsatzen hasi eta arrastoak eta estriak dituen harkaitz batekin pentsatzen dut. Harriaren azalean eginak izan ziren, tresna zorrotz batekin. Arrastoek, estriek, marka horiek, irudi bat osatzen dute, gaur egun geometrikoa deituko genukeena: denboran iraun eta urteak eta mendeak zeharkatzen dituen mezu bat osatzen dute. Milaneko hirian, museo txiki-txiki batean, holako harkaitz bat dago. «*Il masso di Bormo*» deitzen diote. 1956an aurkitu omen zuten, uholde baten ostean, harria agerian geratu zenean. Bere inskripzioek, antza, 7.000 urte dituzte. Kristo baino 5.000 urte lehenago bizi ziren gizakiek egin zituzten.

Il maso di Bormo-n grabatutako mezua guganaino heldu da. Ezin dugu guztiz deszifratu, baina oinarritzkoena ulertzen dugu, tresna zorrotz hura erabili zutenek esan nahi izan zutena ulertzen dugu. Zer dioten mezuak? Ba, hala dio:

«*Hemen egon ginen, egun batean bizirik egon ginen, hemen sentitu eta pentsatu genuen, zerbait ederra egiten saiatu ginen hemen, harri honen gainean*».

* BERNARDO ATXAGA (Asteasu, Guipúzcoa, 1951), es pseudónimo de Joseba Irazu. Licenciado en Ciencias Económicas por la Universidad del País Vasco, trabajó de maestro de euskera, guionista de radio, librero, economista, hasta que, a comienzos de la década de los ochenta, consagró su quehacer exclusivamente a la literatura. En 1972 publicó sus primeros poemas en euskera, en 1976 vio la luz su primera novela *De la ciudad*, en 1978 editó su poemario *Etiopía*, lo que convirtió a Atxaga en insoslayable referencia de la expresividad y solidez del euskera como lengua culta. En 1988 editó *Obabakoak*. La concesión del Premio Euskadi, del Premio de la Crítica, del Prix Millepages y su traducción a más de veinte idiomas han reportado al autor un merecido respeto, revalidado hasta la fecha en cada una de sus entregas. Su último libro, editado en noviembre de 2004, *El hijo del acordeonista*, está ya en su 5.^a edición en castellano y está siendo traducido a varias lenguas.

Erreflexua baino zerbait gehiago izan behar izan zuen. Mugitzeko edo zerbait egiteko premia hutsa baino zerbait gehiago izan behar zuen. Asperraldiaren edo beldurraren aurreko erreakzioa baino zerbait gehiago. Hala erakusten du irudiak egiteko modu zainduak, lanean jarri zuten ahaleginak, eginkizunari eskaini zioten denborak. Beraien antzeko izaki batzuei zuzendutako mezu bat izango zuten buruan, nahiz eta, seguruenik, imajinatu ere ez zuten egingo harri hark Milaneko kale zaratatsu batean amaituko zuenik eta halako batean bidaiari batek ikusi, gogoan hartu eta jendearen aurrean aipatuko zuenik. Baina aipatu egiten dut, eta aipatu ez ezik, errepikatu.

«*Hemen egon ginen* —esan nahi zuten orain zazpi mila urteko izaki haiek harriaren azalean arrastoak eta estriak egiterakoan— *egun batean bizirik egon ginen, hemen sentitu eta pentsatu genuen, zerbait ederra egiten saiatu ginen hemen, harri honen gainean*»

Harri hura, *il masso di Bormo*, jarrita uzten dut hementxe, nire ihardunaren oinarrian.

* * *

Loira ibaiari «*loar*» esaten diote bere inguruetan bizi direnak. Nik ere «*loar*» deituko diot, egoki irizten baitiot, gero eta egokiago, izenak ondo esateari. Bada Loire ibaiaren ertzeko Amboise gazteluan ari naiz orain pentsatzen, hango guardi-salarekin. Goardi-salaren ateetako bat markaz, arrastoz, inskripzioz josita dago. Ordu luze-luzeak bertan pasatzen zituzten soldaduek egin zituzten, duela 500 urte inguru, Katalina Medici Frantziako erregina zela. Datak eta izenak dira, gehienbat. Soldaduen izenak eta, batez ere, emakumeen izenak: *Margot, Marie, Louise*.

Ikusi nituenean, biziki hunkitu ninduten. Egoera pertsonal bategatik, batez ere. Amaitu berria nuen orduantxe derrigorrezko soldaduska, eta Hoyo de Manzanareseko kuartelean egona nintzen; oso kuartel ospetsua garai hartan, justu hantxe fusilatu zituztelako FRAPeko hiru kide. Bada, Hoyo de Manzanareseko guardi-salako atea ere inskripzioz betetzaren zeuden, izenak eta datak azaltzen ziren han ere. Eta kointzidentzia horrek, 500 urteko aldea zuten jarreraren parekotasunak, zorabioa sorrarazi zidaten. Sentitu nuen, Carson McCullersen pertsonai batek bezala, pasaeran nengoela, halabeharrendaren eta denboraren mende; ikaratu ere egin nintzen 500 urtea tartea zeukaten bi goardi-sala haien artean.

Carson McCullersen pertsonai batek bezala, esan dut. Utziezadazue parentesi bat egiten. John Ferris du izena pertsonai horrek «The

sojourner» —«Egonaldia»— izeneko kontaera laburrean. Parisen bizi da Ferris aspaldi, eta Estatu Batuetara joanetorri bat egiteko beharra dauka bere aitaren heriotza dela eta. Georgiako estatuan egon ondoren, han izan baitira bere aitaren hiletak, Nueva Yorken egonaldi laburra egitea erabakitzen du. Egun batekoa soilik, gaztetako lagunei agur egiteko behar duena. Parisera itzultzeko hegazkina hurrengo egunean hartuko du. John Ferrisek bere agenda zabaldu eta bere gaztetako lagun haien izenak irakurtzen hasten da. Nori deituko dio? Betty Willsi? Ez, ezin du. Halamoduzko ezkontza bat egin zuen Bettyk, hobe ez deitzea. Charles Williams? Ezin dio berari ere deitu. Zauritua suertatu zen gerran, eta harrez gero ez du bere berririk izan. Don Walker? Ez, Don Walkerri ere ez, telebistan dabil, aberats bihurtu da; Henry Green? Norbaitek esan zion estropezu egin zuela gerra ondorenean, sanatorio batean dagoela. Cozie Hall? Cozie hilda zegoela iruditu zitzaion, entzuna zuela hura ere. Cozie, beti barrez ari zen neska arin hura, Zaila zen Cozi tuntuna hilda egon zitekeenik pentsatzea. Idazten du Carson McCullersek, deskribaketari buka emanez: «Ferrisek itxi egin zuen agenda, eta zoriaren eta denboraren sentipen bat izan zuen, ikara-modu batena». —*He suffered a sense of hazard, transience, almost of fear*».

Izenak zeuden agendan. Amboiseko gazteluaren guardia salan bezala. Hoyo de Manzanaresekoan bezala. Eta nik ere sumatu nuen, John Ferrisen pare, inskripzioek adierazten zuten egia Horregatik, itzuli Amboise bertako aterpetxe batera eta ohar bat idatzi nuen, nire lehenengo poema liburuan argitaratuko nuena. Hala zioten lerro haiek:

«Izen eta data ezezagunez tatuatutako guardia-salako atea her-tsirik dirau orain ere: lanturu-murru minimoa eta inutila. Catalina de Mediciren.palazioko guardiak aspaldi galdu ziren eta berak grabatutako izenak misterio bat dira gaur egun. Eta Madrileko Hoyosen eta bost mende geroago jestu berbera egin zuten soldaduak ere galdu dira, urrundu dira, hustu dira bere kexak. Denbora gara, kontinuitate bat apika, eta kristalaren bestaldetik isurtzen den harea nekazina da gure epaile bakarra, gure dimentsioen neurtzaile exaktoena, emaro baino eternalki eta betirako linburtzen ari den denbora, eta erloju guztiak ahaztura eta ihesa»

Erretorika apur bat dago Amboisen idatzi nuen oharrean. Sarritan gertatzen da: benetako inpresio baten ondoren erreakzio erretoriko bat dator. Norbera arazoaren parte dela ikusteak sortzen duen ikararen ostean; konturatu ostean norbera ez dagoela arazoaren kanpoan, norbera ere «bizi izan zeneko haietako bat» izango dela, denborari eta hareazko erlojuei buruzko hausnarketa alantatu dator. Baina, berriro

esanda, erreakzioa benetakoa izan zen. eta egia bat ulertarazi zidan: arrasto edo marka bat uztea, lehenengo eta behin, bizitza ospatzea dela, «hemen nago», «bizi naiz» «hau da nire izena» baieztatzea; nahiz eta kexu bat ere ibili tartean: «ez nago nire etxean», «urrun nago nire maitearengandik». Baina, bigarren une batean, denborak aurrera egin bezala, arrasto eta marka horiek, behin izan, bai, baina jada ez den bizitza baten ikur bihurtzen direla.. Desagertutako bizitza baten ikurra. Hots, heriotzaren..

Gogoeta hau bera azaltzen da Hoyo de Manzanarezen izan eta ondorengo beste poema txiki batean. Eta arrastoen —arraien— aipamena ere egiten da bertan. Testuak, poemak, izena du «Hi hintzena».

Hi hintzena,
Bi arraia zaharren gurutzaketa,
Galdu da, galdu haiz
Hautsi da anphora;
Eta mila ispilutan multiplikatua
Ez haiz
azken irudi ezabatua baino;
ilunaz ziprztinduz bekokia,
eta hausterrez
laberintoaren harri txintzarretan
zauritzen hire oin birjinak.

* * *

Carvingak datozkit orain burura, euskal artzainek Nevadako edo Californiako zuhaitzen azalean labanekin egindako inskripzioak. Argi ikusten da horietan —Amboise edo Hoyoseko soldaduenetan baino argiago— marken, arrastoen, alde bikoitza, alde positiboa eta negatiboa. *Carvingean*, jaioterriko baserriaren marraskia ikusten da, edo emakume baten figura; baina datak ere ikusten dira, eta konturatzen gara hura pasatu dela jada. Labana erabili zuena ez dela itzuliko. Bizitzak baino haratago irauten du markak, nola irauten duen —irudi hau Rilke poeta-rena da —...nola irauten duen armadurak berau eraman zuen gurlariak baino haratago.

Monumentuek, hilarriek, berretsi egiten dute beraz —nahiz eta lehendik ere bagenekien, mundu guztiak baitaki, zehatzago edo lausoago— ahanzturaren eta heriotzaren arteko harreman estu hori. Ahanzturaren kontrako markak heriotzaren kontrako markak dira. Berdin zaigu il masso di Bormokoak, edo Amboisekoak, edo Hoyo de Manzanaresekoak, edo auskal artzainen carving delakoak gogoan hartzea.

Mintza gaitezen orain heriotzaz. Lasai-lasai. Larritu edo estutu gabe.

* * *

Badaude, alde batera, ondo itxitako heriotzak. Tristura sortzen dutenak, noski, zorabio hori sortzen dutenak: gure hauskortasunaz ohar-tarazten gaituztenak; baina horrekin batera bakea, atsedena, ematen dutenak; pertsona bezala ditugun alderdi onenak nabarmentzen dituztenak; argiago, klaruago, maitatzeko guraria pizten dutenak;... Holako heriotza bat gertatzen denean, senideak eta lagunak euren buruak zuzendu nahi izaten dituzte, eta promesa egiten diote elkarri: aurrerantzean arreta handiagoa jarriko dutela lagun edota senide horiengan..

Horrelako heriotzak daude, ondo itxitakoak, ezohizko hegaldi batera bultzatzen gaituztenak. Hegaldia diot, sakontasuna baino areago; izan ere, nire esperientzia pertsonala, egoera horretan egon naizenean, altuera hartzekoa izan da, airean gora egitekoa, bizitzaren gaineko ikuspegi zabal bat izatekoa, bizitzaren laino guztien gainetik.

Baina txarto itxitako heriotzak ere badaude, heriotza negatiboak, bakerik ematen ez dutenak. Aitzitik: kezka eta ezinegona ematen dutenak. Zein heriotza diren? Adibidea behar duenak entzun beza John Bergerren poema hau, «Fusilamendu pelotoia».

Zakurrak ahoan zeraman eguna
Ordu txikien zelaitik
Aurrez segurua izandako
Gordeleku batera.

Inor ez zen itzarri egunsentia baino lehen.

Eguerdi aldera
Gerizpean etzan
Eta hanka artean jarri zuen zakurrak umea,
Alferrik itxaron zuen titia hartuko ote zion.

Presoak, ilaran jarrita,
Lotuta eskuak,
Beraiek zabaldutako hilobira
Erortzen dira.

Ahuspez lurraren gainean
Zakurrak eguna darama arrastaka,
Suspertu ere egin ez zena
Ilunera itzuli aurretik.

Izar atsekabetuen azpian
Ustez entzun egiten dute
Zakur bat uhurika
Baita munduaren beste ertzean ere.

Egun errukigarri hau
Itsu eta harria bezain gor
Jaio zen.

John Bergerrek honela idazten du poemaren bukaera, «*The pitious day was born stone-deaf and blind*». «Harria bezain gor» itzuli dut nik «*stone-deaf*» espresioa. Italiarazko bertsiok, berriz, «*nato sordo como un sasso*» dio. Milango museo txikian dagoen *il masso di Bormo* har-kaitza gogoan, zera esan dezaket: egun hark ere, fusilamenduenak, jaso zuela bere marka, John Bergerren poema.,

Baina jarrai dezadan, sobera aurreratu gabe, txarto itxitako herio-tzekin. Heriotza horiek, denboran murgildu eta urtu beharrean, aldaezin segitzen dute, gogor, solido, harri. Beti min bera egiten duten herio-tzak dira, bigarren mailako fruitu lez depresioa, pesimismoa eta gorroto gaiztoa, gorroto morbosoa sortzen dutenak..

Kontaera herrikoiak (eta horiek ere markak dira, arrastoak, es-triak.... Alde bakarra da ez direla egiten harri baten gainean eta tres-na zorrotz batekin, ezpada hizkuntzaren azal gainean eta erliebea hartzen duten hitzekin. Zehatza izan nahi dut: ipuinak, esamesak, «atsoen hitzak» —jende marrokiarraren esanetan «haizearen gezur» baizik ez diren kontaera guzti horiek—ildo eta marrazki jakin batzuk jarraitzen dituzten hitzekin osatzen dira)... bada, kontaera herrikoi horiek txarto itxitako heriotzei buruz aritzen dira sarritan. Esan ohi da, kasu —kontatu ohi da— arima batzuek ezin izaten dutela atse-den hartu, zergatik eta bizitzako zereginen bat konpondu gabe gera-tu zitzaielako, eta horregatik segitzen dutela lurrean mamu bezala, *izpiritu* edo *itzal* bezala, Mateo Txistu bezala, Santa Compañako kide bezala.

Badira, hala ere, kontaera herrikoietan azaltzen direnak baino he-riotza txarragoak, larriagoak. Contaera herrikoietan —nik buruan ditu-danetan, behinik behin—, heriotza biktimaren hutsegite baten erruz ix-ten da txarto: hildakoak aitortu gabeko krimen bat egin zuen, eta ezin izango du atsedean hartu, harik eta biktimak barkatu arte. Baina badira beste heriotza batzuk —txarragoak, esan dudan moduan— alderantziz gertatu zirenak: kasu hauetan, zigorrik gabe geratutako injustizia izan zen heriotza, eta, gainera, biolentoa izan zen, krudela, izugarria. Eta

horrek, arrazoi osoz, pesimismoa, depresioa, gorroto morbosoa baina zilegia sortu zuen. Gorrotoa hiltzailearen aurka; gorrotoa kaletik —«disimulu ederrean», esango genuke— paseatzen jarraitzen duen hiltzailearen aurka. Auchswitz datorkit gogora, Gernikako bonbardaketa, Hiroshima eta Nagasakin botatako bonba; Txilen eta Argentinan desagertutakoak, Gazan eta Jerusalem hiltzen direnak; gogoan dut, noski, Euskal Herria, eta, zehazki—muturreko heriotzak izan zirelako eta denborak ez dituelako izugarrikeria horiek arindu—, gogoan ditut Miguel Angel Blanco, Ortega Lara, Lasa eta Zabala, Zabalza eta beste askoren kontra egindako krimenak.

Harriaren gaineko markek mezu sinplea osatzen zuten: «Hemen egon ginen», «Bizirik egon ginen behin». Berdin Amboise eta Hoyoseko inskripzioek edo Nevada edo Californiako mendietako *carvingak*. Baina txarto itxitako heriotzen aurrean egiten diren markek, zigorrik gabeko krimenen aurrean egiten direnak, ez dute soilik ahanzturaren edo behin-betiko heriotzaren kontra borroka egiten, baizik eta, gainera, injustizia bat adierazten dute eta, horrekin batera, aspaldiko galdera berritzen: «Kain, non dago zure anaia?». Marka, memoria hutsa, zigorra da agian kriminalarentzat, paseoan dabilen eta semeari edo ilobari begiratzen dion hiltzailearentzat, baina markek duten benetako balioa bere transformazio gaitasuna da Abesti, testu, salaketa, sententzia sinatu eta zigilatu bihur daitezkeela.

Hobe, adibide batzuk jartzea. Hobe markak, abesti —edo testu, salaketa, sententzia sinatu eta zigilatu — bihurtzeko gaitasuna adibidez adibide adieraztea.

Gipuzkoako herri batean, Andoainen, Asu deitutako baserri baten ondoan, «nazionalak» preso hartutako gizon bat fusilatu zuten. 1936ko abuztuaren 16an gertatu zen. Baserriko jabeak gogoan zeuzkan gurasoei entzundakoak, eta horregatik aurkitu ahal izan zituzten bere hezurak; horregatik, eta oraindik ere bertan zeudelako guraso haiek utzitako markak. Halaxe azaldu zien baserritarrak Aranzadi elkarteko forentseei: «*Aita eta biok segan askotan etortzen ginen hona, eta beti esaten zidan kontuz ibili hadi, hor hildako bat zegok-eta. Hemen koska txiki bat zegoen, eta belar- meta ere hortxe egiten genuen garai batean, hildakoaren ondoan beti*».

Esan ohi da kultura, —zibilizazioa, gizateria— hildakoak lurperatzearekin hasi zela: lehenengo gizakiek, hilotza piztiei utzi ez eta zeremonia bat egiten hasi zirenean; kidea zetzan lurra leku sakratu bihurtu

zutenean. Asu baserriko ugazaben sentitzeko eta pentsatzeko modua ere horrelakoxea zelako kontu handiz ibiltzen ziren segan, eta marka —belar meta— «hildakoaren ondoan» egiten zuten, ez bere gainean. Hona memoriaren garaipena: marka hori —hirurogei urte baino gehiago pasa eta gero— transformatu egin da: testu bihurtu da. Historia idatzia da orain. Eta, ziur aski, aurrerantzean ere gehiago idatziko da haren inguruan.

Eta Andoaindik Oviedora. *Ovieu* esaten diote bertako batzuk hiriarri; baina guk aurrean daukagun testuan «Oviedo» jartzen du. Bada Oviedon, gerra zibilean, krimen bereziki ankerra gertatu zen, hain zuzen ere Valdediós monasterioan jarritako erietxe psikiatrikoan. Nazionalek —Nafarroako «Arapiles» batailoikoek— han lan egiten zuten pertsona gehienak fusilatu zituzten. Dio Justin Websterrek, plazaratu berria den «Granta» aldizkariak argitaratutako artikulu bikainean:

«Gertakaria ez zen normala izan, gerrak Asturiasen izan zuen basakeria kontuan izanda ere. Inguru hartan, ordurako borroka egiteari utzi zitzaion. Biktimak ez ziren soilik zibilak: erizainak ere baudeuden, batez ere emakumeak. Argi zegoen errepresalietatik at ikusten zutela euren burua, zeren, bestela, alde egingo zuketean. Euretako bi neskatotoxoak baino ez ziren. Denak hil zituzten epaiketarik gabe, gauzez eta zabarkeriaz egindako zulo batean lurperatuz. Hiltzaileak armada erregularreko kideak ziren, ez kontrolatu gabeko fanatikoak...».

Ez dut zita horrekin jarraituko. Ez orain. Transformazioaren ideiarekin segitzeko aipatu nahi izan dut. Markak testu bihurtzen direla. Eta batzuetan testu horiek bikainak direla. Halaxe Justin Websterrena.

Markatik testura, eta testutik nora? Lehen ere esan dut, agian azkarregi, salaketa dela helburu, edota, borobilago, sinatutako eta zigilatutako sententzia. Norabidea, dudarik gabe, zuzena da. Kriminalak bere krimenak ordaindu behar ditu, justizia helburu nagusia da. Baina, hori baino lehen, testuak beste lan batzuk egiten ditu. Baita azken helburua, justizia, lortzen ez denean ere.

Batzuetan, marka eta testua biltzen dituen alkimia horrek, berreskuratuz, berraipatu, berrizendatu egiten du kriminalak —«disimulu ederrean dabilen horrek—ezkutatu nahi duen guztia.

Lekuen izenak berreskuratzen ditu, lehenengoz eta behin: «Asu baserria», «Valdedios», «Villa Grimaldi», «El Vesubio». Juan Gelmán idazle argentinarren poeman bezala. Esango dugu gaztelaniaz, jatorrizko hizkuntzan; nahiz jatorrizko azentu argentinarrik gabe:

El Vesubio. Juan Gelman

Los militares llamaban El Vesubio a
Un campo de concentración situado
A pocos metros de la autopista General Richieri.
Así lo bautizaron por
La columna de humo negro que
Subía de compañeros mezclados
Con fuego de neumáticos. Los
Que fueron alegres mataban
La alegría del aire. Las bestias
Desorganizan los misterios y crean
El misterio de iniquidad.
Hay momentos en que la vida es
Una bruma que no se puede navegar.
El fracaso del corazón cae en la tarde como
Un pájaro olvidado del vuelo.
Ese no ser se parece a la noche
Que orina mi alma.

Lekuenak ez ezik, biktimen izenak ere biltzen ditu testuak. «Antonio Piedrafita», kasu, Valdediósen erizaina zen fusilatutako gizon bate-na. «Concepción Moslares», «Ángeles García», «Lucía» :

«Concepción Moslares y Ángeles García, naturales de Oviedo las dos, estaban de guardia durante el turno diurno y nocturno respectivamente. Nati recuerda que esa noche estaba en la cama a punto de dormirse cuando oyó disparos, el tableteo de ametralladora, perfectamente reconocible, que llegaba de más abajo. Nadie salió al exterior.

A primera hora de la mañana siguiente, su padre bajó por la ladera para ver qué era lo que había sucedido. Allí no había nadie con vida. Los cuerpos estaban enterrados en una fosa muy mal cubierta: manos y cabellos humanos emergían de la tierra. El padre de Nati recordaba haber visto el pelo claro de Lucía, una hermosa muchacha de 19 años que trabajaba en la cocina. Los soldados ya se habían marchado»

Justin Websterren lerroak izan dira oster, Grantaren Espainiako edizioaren ale atera berrian. Ohar bat aurrera egin aurretik. Gogoratu arestian adierazitakoa: kultura, —zibilizazioa, gizateria— hildakoak lurperatzearekin hasi zela: lehenengo gizakiek, hilotza piztiei utzi beharrean, zeremonia bat egiten hasi zirenean; kidea zetzan lurra leku sakratu bihurtu zutenean. Pentsatu, instant batez, sarraskiaren erantzule zutenek —Arapiles bataloiko militarrek— ez zutela horrenbeste ere egin. Pentsatu halaber —baina instant bat baino gehiago beharko duzue ho-

netarako— piztiak bezala jokatu zuen haiek kristautasunaren defentsan zebiltzala...

Marka transformatzen duen alkimia horrek ez ditu izenak eta lekuak bakarrik biltzen. Hamaika xehetasun gehiago jasotzen ditu Eta xehetasunak oso garrantzitsuak dira. Ez dago agian ezer garrantzitsuagorik. «Jainkoa xehetasunetan dago», esan zuen pintore batek. Eta, hain zuzen ere, xehetasunak jasotzen ditu John Bergerrek «Poesiaren ordua» delako testuan jasotzen duen poema honek. Ariel Dorfman idazle txiletarrak idatzi zuen Pinochet jeneralaren garaietan. Bere hizkuntzan irakurriko dut, ikmajinatu zuek azentu txiletarra:

«Mi hijo se encuentra
desaparecido
desde el 8 de Mayo
del año pasado.
Le vinieron a buscar
Sólo por unas horas,
Dijeron,
Sólo para algunas preguntas
De rutina.
Desde que el auto partió
Ese auto sin patente
No hemos podido
Saber
Nada más
Acerca de él.
Ahora cambiaron las cosas.
Hemos sabido por un joven compañero
Al que acaban de soltar,
Que cinco meses más tarde
Lo estaban torturando
En Villa Grimaldi,
Que a fines de septiembre
Lo seguían interrogando
En la casa colorada
Que fue de los Grimaldi.
Dicen que lo reconocieron
Por la voz, por los gritos,
Dicen.
Quiero que me respondan con franqueza,
Qué época es ésta
En qué siglo habitamos,
Cuál es el nombre
De este país?

Cómo puede ser,
Eso les preguntó,
Que la alegría de un
Padre
Que la felicidad de una
Madre,
Consista en saber
Que a su hijo
Lo están
Que lo están torturando?
Y presumir por lo tanto
Que se encontraba vivo
Cinco meses después,
Que nuestra máxima
Esperanza
Sea averiguar
El año entrante
Que ocho meses más tarde
Seguían con las torturas
Y puede, podría, pudiera,
Que todavía esté vivo?

Markatik testura, lekukoen kontatera ere jasotzen du batzuetan, biktimaren ahotsa. Halaxe Yvonne Cloud idazle ingelesak, 1937an argitaratutako *The Basque Children in England* liburuak. Stonehameko kanpamendua bisitatu zuen Yvonne Cloudek, eta Gernikako bonbardaketa bizi izan zuen Imanol izeneko ume baten koadernoak erakutsi zion norbaitek. Argitaratu egin zuen gero umeak idatzitakoa, Imanolek kontatutakoa:

IMANOLEK KONTATUTAKOIA

«Bilbao bonbardeatzera zihoazen abioiak herritik pasatzen zirenean, kanpaiak jotzen zituzten beti. Ohituta geunden. Egun hartan ere, herri guztia baserritarrez eta azokarako ganaduz beteta zegoenean, kanpaiak jo zituzten, baina inork ez zien kaso handirik egin. Bapatean eztanda batzuk sentitu ziren. Su-zirritadak eta kea ikusi nituen herriaren beste muturrean. Babestokietara! Babestokietara! Jendea korrika hasi zen norabide guztietan, izututa. Ni lagun batekin eta nire osabarekin granada-piezak egiten zituzten fabrika txiki batera joan nintzen korrika. Murru altu bat zuen, erraz pasatzeko modukoa. Bonbak gelditu gabe erortzen ziren; itozteko zorian geunden keagatik eta hautsagatik. Baina bonbek ez zuten fabrika jotzen. Horrelakoe-tan, fabrikak toki segurua dira, hospitalak baino askoz seguruagoa. Nire osabak esan zuen: "Goazen mendi aldera", eta kalean barrera

abiatu zen. Orduan, abioi bat zitzuan jaitsi, eta osaba zeharka erori zen, burutik odola zeriola. Ez zegoen ezer egiterik eta gainera ikarata geunden, beraz bertan utzi genuen. Eta laguna eta biok baratzak korrika pasa, mendian gora jo eta zuhaitz baten azpian gorde ginen. Ez zen babes handia, baina bizia salbatu zigun. Abioiak, bost abioi, gure inguruan jiraka ibili ziren hogei bat minutuz, joan eta etorri. Ametrailadorak tarrapataka sentitzen genituen, baina guri eman gabe. Gauza latzak ikusi genituen. Gure inguru hartan gizon bat zegoen, ordurarte ehizean ibilia. Korrika hasi zen txabola batean babes-teko eta abioiek hil egin zuten, eta bere txakurra ere bai. Gure kaleko familia ezagun bat baso batean sartu zen. Ama bi umerekin eta amona xarra. Abioiak baso gainean zirkuluak egiten ibili ziren denbora puska batean, eta azkenean aterarazi egin zituzten denak, ikaratatuta. Zanga batean gorde ziren. Ikusi genuen amama xarrak mutil-koxkorra aurreko mantalaren azpian gordetzen zuela. Abioiak jaitsi eta hil egin zituzten denak zangan, mutil-koxkorra bakarrik geratu zen bizirik. Handik gutxira zutik jarri eta belazean bueltaka hasi zen, negarrez. Eraso egin zioten berari ere. Latza zen; laguna eta biok negar eta negar geunden, hitzegitea ere ezinezkoa zitzaigun. Jende guztia hiltzen ari ziren, belazetan gorpuak zeuden nonahi. Gero saskietan jaso behar izan genituen. Berealditako pila. Handik puska batera abioiak joan ziren eta gu Gernikara itzuli ginen. Kea eta txikizioa, besterik ez zen han. Gure etxe izandakora joan, eta ez zegoen han ezer; ezta ezer ere, gure etxearen oroirak bezala gordetzeko. Medikua bat zebilen bere kotxean zaurituak jasotzen ari zirenei laguntzen. Ez dakit nola atera zen bizirik. Hirurogei lagun hil zituzten babestoki erdi-bukatu batean. Abiadoreek bromak egin zituzten gainera, eta kroka-giltzak eta mailuak bota zituzten. Batek janez betetako zumitzezko saski bat bota zuen, nire lagun bati eman ziona. Gero orri batzuk bota zituzten. Jana eta etxe epelak agintzen zizkiguten baldin eta makurtzen baginen. Etxe epela Gernika bezalakoa izango ahal da, hala espero dut nik...»

Iliadan idatzita dago: Akilesek airezkoa bezalakoa figura batekin hitz egin zuela, eta figura hark batailan hildako bere lagun Patrodoren itxura guztia zeukala. «Patrocloren *phantasmarekin* hitz egin zuen», dio Homerok, *phantasma* hitza historian lehenengoz erabiliz. Esan daiteke agian markatik datorren testuak berreskuratu egiten duela, ez biktima bera, baina bai biktimaren parekorik hurbilena, hau da, bere phantasma.

Kriminalak ezabatu nahi izaten ditu aztarnak, izenak, aurpegiak, narrazioak, dokumentuak, euskarri nmotekniko guztiak —Asu baserrikoek kontatu zuten, Andoainen harrapatutako gizonak karta bat idatzi zuen fusilatua izan baino lehen, frantsesez eta Bordelera bidal-

tzeko; baina krimenaren ardua izan zuen militarrek eskutitza ikusi eta apurtu egin zuen—. Kriminalak bere helburu ezabatzailea lortzen duenean, biktima ahanzturan murgiltzen da, harria uretan legez, harri arrunt eta baliorik gabekoa bailitzan; bere phantasma berreskuratuz gero, ordea, berpiztu egiten da biktima, bere hainbat ezaugarriekin gainera. Picassok pintura bihurtu zuen Gernikako marka, kriminalak behin eta berriro ezabatu nahi izandakoa, eta izugarri lagundu zion gure memoriari; halaxe lagunduko lioke —munduan barrena zabalduko balitz— Imanol izeneko umeak bere koadernoan idatzi zuen kontraerak, Yvonne Cloudek bere liburuan jasotakoak.

* * *

Zurumuru bat dabil azkenaldi honetan gezur bat dabil airean zera defenditzen duena, erlatibismoa. Erlatibismoa —hiztegitik kopiatzen dut— «egia absolutua baztertzen duen filosofia joera da, ezagutza oro ezagutzailearen beraren eta kanpoko baldintzen eta egoeren araberkoa dela aldarrikatzen duena». Filosofia joera honen merkeko bertsioak dio berriz —ari garen gai honen inguruan— Gernikakoa aspaldi gertatu zela, Oviedokoa edo Asu baserrikoa ere bai, Txilekoa eta Argentinakoa urruti; eta dio, beste arlo batzuetan, Lasa eta Zabalarena ulergarria dela baina Miguel Angel Blancorena ez; edo dio kontra-koa, Lasa eta Zabalarena latza izan zela eta MiguelAngel Blancorena deitoragarria baina ulergarria. Eta abar. Erlatibismo horrek ur azpira bidaltzen du harria, ahazturan murgiltzen du biktima, kriminalari laguntzen dio. Zilegi bekit, berriro ere John Berger aipatzea. Berak Hiroshima eta Nagasakiko umeen marrazki erakusketa bat zela eta, testu bat idatzi zuen. Aurrena ume baten lekukotasuna jaso zuen, beste ume bati buruzkoa.

«Abuztuak 8. Entrenamendu militarreko mendebaleko ertzean lau edo bost urteko ume bat zegoen. Erabat kiskalita zegoen, bizkarez etzanda lurrrean eta besoak zerurantz altxata zituela»

Eta dio John Bergerrek testuari bukaera emanez:

«Solik beste aldera edo gainetik begiratuz sinets dezakegu Gaitza erlatiboa dela, erlatiboa eta beraz, baldintza jakin batzuekin, justifikagarria. Egiatan —hildakoak eta bizirik ateratakoak dira egia horren lekukoak— ezin da inoiz justifikatu».

Ohar zaitzte: justifikatu «zuritu» ere esan daiteke euskaraz, eta «zuria» faltsu izatearen modu bat ere bada. Eta gogoratu «zuritutako hilobiak» higuinarriztat jotzen direla aspalditik.

Esan daitezke bi hitz Hiri honetaz? Bilbo edo Bilbao honetaz? Nire hiria da, hiri honetakoa sentitzen naiz Ekonomia ikastera etorri eta idazle bihurtu nintzenetik. Gainera, denbora luze batez, ez nuen beste gairik izan: soilik hiria bera, ibaia, zubiak, ibai eta zubi horien inguruan ernetzen zen bizitza. Liburutegi honetatik oso urrun ez zegoen gela batera joan eta nire markak egiten nituen:

Herdoilaren tristeziarekin batera,
Ziutate honen soinekoa udazkenetan lanbroa da;
Eta bere sabaia laino baso bat
Non bizi den ilargiaren badaezpadako agonia.
Eta kalatxorien habi eskaleen sakelak,
Eta sukalde proletarioen argi urdinskak
Murraila erraldoiaren begi gauero.
Zubi zaharrenetatik
Ibaiari so berripaper saltzailea
Hitz ezezagunen hiztegi bati bezala;
Bus txofer batzu bozeolari hilaz mintzatzen,
Apatridak bailiran trenak
Memoria karrilen fatalitatean galduz;
Denboraren oihal xinglea arratsezkoa soilik;
Arrabita baldarren nostalgia kantoietan,
Eta harantzago moskorrak,
Kalegarbitzaileen beilegi bizia,
Beste zubi bat, prostitutak.

Liburutugitik oso urrun ez zegoen beste gela batean Ruper Ordorika nire laguna bizi zen. Berak indartu, areagotu, egiten zuen nire marka; sakondu egiten zuen nire arrastoa. Beste hitzetan, kantu bihurtzen zuen nire testua.

* * *

Esan ditzaket bi hitz Hiri honetaz? Bada, egun batez, konpainia on batean, bilbotarrik baizen etzen lekuan nengoela, ekarri zuen solasak, izan zen perpausa, etzuela deusek hanbat kalte egiten hiri baten arimako eta gorputzeko nola bere historiaren, hots, beratik pasatako bizitzaren, baztertzeak eta ahazteak, Mintzatu ginen hala barkuek, eta bat etorri ginen barkuek hiriari ematen zioten xarmaz; mintzatu ginen itxas-ibaiaz eta gogora ekarri genuen, goxoki, bertan ospatzen ziren boxeo leihaketak, zeinek uraren gaineko koadrilateroetan jokatzeko ziren boxeolariak haraino txalupetan joaten ziren; ez saltoka eta kolpe-keinuak egiten, ohi dutenez; mintzatu ginen, baita ere hurbileko mendietan oraindik ere ikus daitezkeen lur urratuak, lehengo burdin.-meategiena.

Eta denok bat etorri ginen, deitoragarria zela hiri honek marka haiek, arrasto haiek ez bereganatzea.

Halako batean, esan zuen gutako batek: «Eta Artxandara igo ziren boluntarioak? Heriotz ia seguru bat agindu arren, Artxandara igo eta abiazio alemaniar naziar zein armada faszistari aurre egin zioten hiriko seme haiek, ez al dute oroitzen merezi? Ez al litzuke hiriak haien izenak —haien izenak, behintzat— gogoratu behar? Gure artekoa desenkusatu egin zen hartutako tonu ozen eta apika heroikoagatik, baina bereari eutsi zion, eta gaineratu zuen: «Frantzian, joan noranahi, eta hantxe dago plaka bat nazien aurkako erresistentzian eroritako baten izenarekin. Eta Bilbaon, non erresistentzia hori gogorragoa eta zabala goa izan zen, ez eta bakar bat ere».

Barkuekin, boxeolariekin eta meategiekin gertatu ez bezala, gai honi buruz ez zen gure lagunartean batasunik egon. Labur adierazita, batzuk zioten hemengo gerra zibila izan zela eta «beste aldeko jendea ere egon zela hirian, nazionalak ere bazirela eta sufritu zutela», eta halako oroigarri eta abarrek zauri zaharra ireki egingo zutela berriro. Gaia ateratako kideak eta beste batzuk, berriz, gogortu egin zuten bere jarrerara: planteamendu hura naziei eta faszistei amore ematea besterik ez zela; maila bereak jartzea Hans Sobotka bezalako hegazkinlari nazia eta bere bonbek hil zituzten ume, andre eta gizonak —«zeinen argazki batzuk oraindik ere ikus daitezkeen; maila berean jartzea hiriko gerra aurreko alkate hautatua eta Jose Maria de Areilza bezalako pertsona bat, hiriari eskaini zion diskurtso nardagarri eta guzti,

Aitortuko dut nire iritzia. Gaia atera zuen kidearekin nago. Nire ustez, hiri honek erabaki egin beharko luke: bere iragan antifaszistaren markak, arrastoak jaso, ala ez. Hots, ixildu marka horiek zergatik eta hirian bertan bizi diren beste batzuk mindu egingo lirakeelako. Hots, mindu egingo lirakeelako Jacinto Miquelarena bezalako kazetari eta ideologoei pozik irakurtzen zien haiek, edo haien ondorengoan.

Jacinto Miquelarena kazetari bilbotarra zen. Eta poeta ere izango zen seguru asko. ABCrako idazten zuen, eta Bigarren Gerrate Handiaren garaian Alemanian ibili zen. Berak argitaratutako artikuluekin liburu bat osatu zuen Espasa Calpe argitaletxeak 1942an. Entzun ezazue pasarte hau, «La palabra de Hitler» artikutik kopiatu dudana:

Berlín, 31 de Enero de 1941.

«Solamente cuando se ha oído un discurso del Führer...

Konprenitzekoa da ez erabaki nahi izatea. Hiriko agintetza dutenek, esan nahi dut. Hamaika arrazoi bururatzen zaizkit uko horretarako. Beraiek, agintetza dutenek, aldarrikatuko lituzketenak, alegia. Argudio asko praktikotasunaren inguruan mamituko lituzkete, aurrera begiratu beharra dagoela, tren berriak harrapatu behar direla, eta abar. Metaforak, nire ustez. Eta merkekoak, ahazturaren alde lan egiten dutenen erlatibismoa bezala. Hiri batek izan dezakeen baliorik handienetakoa —pozik bizi dadin jendea bertan, pozik etor dadin kanpoko jendea bisitatzera— bere ispiritua da; bere arima, esango nuke lengoai erromantikoa une batez nireganatuz. Eta izpiritu epela, Hitler, Mussolini, Franco eta gainerakoei aurre egin zienen izena ere jasoptzeko gai ez dena, denik eta arbuigarriena da. Esaten du Dantek ere bere Divinia Comedian: «Epelak ez dira inoiz zerruan sartuko».

Azken izpi bat praktikotasuna dela eta. Epelak ez ezik, inozenteak ere izango ginateke baldin eta isiltasunarekin, marka eta arrastoen ezabatzearekin, ezer konpontzen dela pentsatuko bagenu. Joera bortizki kontrajarriak, ideologia adiskidetu ezinak, agresibitate politikoa, hori eta dena eta hainbat gauza txar gehiago hor daude, azpian, mutu; baina ez bare, ez hilda. Zeinahi unetan erne egingo liriateke berriro. Epelki eta inozenteki lortzen den bakarra gauzak atzekoz aurrera jartzea besterik ez. Fraga Iribarne bezalako pertsonai batek demokrazia lezioak eman nahi izatea Gasteizko hiriari; eman nahi izatea eta ematea, zeren media guztietan azaldu baitzen lezioa. Epel eta isil gelditzen direnak Jouberten sententzia hartu beharko lukete gogoan: «Hik egiten ez duan politika hire aurka egingo duk». Esan beharrik eza dago, Franco jeneralaren monumentu asko hor darraite. Gerra irabazi zutenek ez dute orduko kolpe militarra kondenatu. Beraiek, nazionalak eta haien jarraitzaileek, ez dituzte beren marka batzuk ezabatu nahi. Soilik komeni ez zaizkienak. Miquelarenaren liburua, esaterako. Izugarri kosta zitzaidan aurkitzea.

* * *

Beltzetik txurira pasako naiz. Alkandora beltzak ibili ditut gogoan, orain berriz —zenbatenaz ataseginagoa den!— ibai txuri bat. Aspaldi, Jose Miguel Barandiaranen liburu batean, esnezko ibaiei buruzko erferentzia bat aurkitu nuen: garai bateko euskaldunen mundu ikuspegian «esnezko ibaia lurpetik zebiltzaneko ustea» zegoela. Ederra iruditu zitzaizkidan nire irudimenean esnezko ibai haiek, eta «Fas fatum» izeneko poema batera ekarri nuen:

(...) Arrazoa daukan,
menturazeleen sasoia amaitu den;
lurra orain ere
infinituak ditun haur-oin ttikientzat,
eta atzo bezala esnezko ibaiak
obsesiboki bejetalen azprietatik...

Holaxe gelditu zen poema urtetan. Eta holaxe dago orain. Baina orain beste modu batera ikusten dut nik. Izan ere — duela gutxi zabaldu zen albistea, jakingo duzue zuek ere— benetako esnezko ibai bat, munduan bakarretakoa, munduko luzeena, azaldu da, aurkitu dute Aranzadikoek —gerran fusilatutakoak aurkitzen ari diren erakunde berberekoek—... Hernio mendiaren kobazulo batean. Fenomeno geologiko bakana omen, eta nik sinisten dut: sinisten dut gainera, zorian zerbait sinisten baitut, augurio on bat izango dela euskaldunontzat. Fas fatum.

* * *

Testu, salaketa eta sententzia ez ezik markak abesti bihur daitezkeela esan dut lehenago. Historia labur bat kontatuko dut orain. Pertsonala. Duela urte batzuk bagindoazen lagun bat eta biok Montevideoko abenida batetik, eta adineko gizon bat hurbildu zitzaigun. Lagunari zuzendu eta poltsa zabalik zeramala adierazi zion nire lagunari, ibiltzeko kontuz, lapur asko zebilela Montevideoko kaleetan. Txukuin jantzita zegoen gizona, nahiz trajea apur bat maiztua zeukan. Laurogehi urte inguru kalkulatu nizkion. Uruguay ez zela lehengo adierazi zigun, iragan denboretan «Hego Amerikako Suiza» izan zela, baina denbora hori joana zela. Nongoak ginen gu, galdetu zigun. Zalantza batzuren ondoren — España hitza esan ala ez, etc.— euskaldunak ginela adierazi genien. «Pues lo mismo la bisabuela que me cuidó de niño», erantzun zigun. Eta gehitu: «Aún recuerdo la canción que siempre me cantaba para que me durmiera». Bat batean, abenida hartan —Avenida del General Gonzalez Madrones— kantu bat sortu zen laurogei urte inguruko gizon haren ahotik: «Iruten ari nūzu, kilua gerrian, ardura dudalarik nigarra begian...»

Gertaerak jarraipena izan zuen, baina ez dut gaur kontatuko. Esan nahi dut bakarrik abestiaren, kantuaren markak izugarri irauten duela: laurogehi urte izandakoan ere gogoratu egingo ditugu umetan ikasitako kanta. Iraupen ttikia, noski, harkaitzean egindako arraia eta estriek dutenaren aldera; baina poema batek baino gehiago, oro har.

Abestiek ere, beraz, eduki bat eramaten dute denboran barrena. Anphorak bezala, bestalde. Bukatu egin behar dugu: entzun dezagun anphorak aintzat hartzen dituen kantu bat.